

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Udal Euskaltegia (Basauri)**

Mantentze-lanen Arduradun lanpostu bat betetzeko, hautaketa-prozesuan onartutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea eta hautatzeko prozesurako epaimahaia izendatzea.

Udal euskaltegiko lehendakariak, 2023ko abenduaren 4an, ebazpena eman du, honakoa dioena:

EBAZPENA

Lehenengoa: Mantentze-lanen arduradun lanpostu bat (1) betetzeko hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea.

MANTENTZE-LANEN ARDURADUN LANPOSTU BAT (1) HAUTAKETA-PROZESUAN ONARTUTAKO IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

NAN	Izen-abizenak	Behin behineko puntuazioa guztira autobalorazio formularioaren arabera
*****61C	Sojo Gil, Maria Helena	100
*****32X	Mugarza Zarandona, Aitor	80

Bigarrena: Hautaketa-prozesu honetarako kalifikazio-epaimahaia izendatzea. Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako Saileko diputatuaren martxoaren 8ko 1807/2023 Foru Aginduan izendatutako pertsonak osatuko dute epaimahaia, Bizkaiko Foru Aldundiak toki-erakunde honekin egindako kudeaketa-gomendioari jarraiki:

- **Presidentea:**
 - Titularra: María Uribe Guerendiain.
Ordezkoa: Marta Vielba Postigo.
- **Idazkaria:**
 - Titularra: Encarnación Martínez Zamora.
Ordezkoa: María Elena Iturrizaga Larrabeiti.
- **Batzorkideak:**
 - Titularra: Oihana Ariznabarreta Bergareche.
Ordezkoa: José Arriola de la Vega.
 - Titularra: Amaia Aramburu Larrea.
Ordezkoa: Aitor Ortega Ruiz.
 - Titularra: María Isabel Zarraga Buzeta.
Ordezkoa: Josu Martínez Serrano.
- **IVAP:**
 - Titularra: Manuel B. González Abrisqueta.
Ordezkoa: Pilar Goitia Salvatierra.

Epaimahaiko kideek ezin izango dute parte hartu, eta hautagaiak errefusatu ahal izango dituzte, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean.

Hirugarrena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-oholean eta Basauriko Udalaren web orrian argitaratzeko agintzea.

Laugarrena: Onarpenak ez du esan nahi prozesua izapidetzen ari den bitartean baztertutak ez izateko eskubidea eskuratu denik, proba guztiak egin diren ala ez alde bate-



ra utzita, baldin eta, aurkeztutako datuak edo dokumentazioa egiaztatzearen ondorioz, hautapen-prozesuan onartzeko eta parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ez dituela ikusten bada. Kasu horretan, epaimahai jarduleak baztertzeko proposamena egingo du, interesdunari entzun ondoren, Lehendakariak dagokion ebazpena eman dezan.

Bostgarrena: Ebazpen honen aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio udal euskaltegiko lehendakariari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean inpugnatu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratzen denetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Basaurin, 2023ko abenduaren 4an. —Lehendakaria, Maria Elisa Arroyo Olaizola